

EKITALDIAK-EVENTOS / MUSEOS-MUSEOAK / SAGASTIA-MANZANAL

“Sagastiak loretan” ospakizuna.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 03/07/2014 · 10:49

Sin comentarios



Udaberriaren etorrerarekin batera, gure sagarrondoak lorez bete eta sagastiak txuri kolorez janzten dira. Erleak lorez-lore hegan eginez, udaberriko polinizazioarekin hasten dira. Urte sasoi honek gure sagastietan duen garrantzia ospatu eta sagastiek eskaintzen dizkiguten paisaia zoragarriez gozatu ahal izateko, apirilaren 8tik maiatzaren 24ra bitartean “Sagastiak loretan” ekimena ospatu dugu Sagardoaren Lurraldean hainbat jarduera antolatuz.

Sagardoetxeako udaberriko bisitak

Sagardoetxean izan ditugun bisiten edukiak udaberriko egutegira moldatu ditugu eta **erleen mundua**, **polinizazioa** eta **sagastiko intsektuen**

gaiak landu ditugu bisitariekin.

Honetaz gain, Astigarragako Arantzazuko Ama ikastolako haurrak gure sagastian ibili dira intsektuak hartzen eta gero ikasgelara eraman dituzte bertan aztertzeko.

Argazki lehiaketa Facebook-en

“Sagastiak loretan eta ardiak larretan” argazki lehiaketa antolatu dugu Facebook-en apirila-maiatza bitartean.

Lehiaketa hau Astigarragako Sagardoetxea Museoa, Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri Museoa, Ordiziako D'Elikatuz Zentroa eta Idiazabalgo Gaztaren Interpretazio Zentroarekin batera antolatu dugu.

Denera 6 parte-hartzailearen 24 argazki jaso ditugu eta sarituak bi izan dira:

- 1) **Eduardo Perez del Olmo**, lehiaketako irabazlea. Saria: “Sagardoa eta gazta” pasaporte gastronomikoko esperientziak (museo gastronomikoetako bisitak, gaztandegiko bisita eta sagardotegian otordua).
- 2) **Imanol Manterola**, Idiazabalen Gazta Egunean ospatu zen bozketa herrikoia irabazlea. Saria: gazta eta sagardo lotea.

Sagardoa, sagar muztioa eta likoreen dastaketa Ordizian

Ordizian maiatzaren 3an ospatu zen Gaztaren Egunean, **sagarretik eratorritako produktu ezberdinen dastaketa** ospatu zen sagardoetxearen eskutik.

Bertaratuek, sagardo ezberdinak, sagar muztioa, likoreak eta *Byhur* sagardo aparduna dastatzeko aukera izan zuten.

Jende ugari bildu zen dastaketa berezi honetara, Katalunia eta Zaragozako bisitariak, besteak beste.

Museoen Nazioarteko Eguna Sagardoetxean

Urtero bezala, Museoen Nazioarteko Eguna ospatu genuen Sagardoetxean maiatzaren 18an.

Aurreko urteetan bezala, museoarako sarrera dohakoa izan zen egun osoan zehar eta honetaz gain, haurrei eskainitako “**Dasti ipuinkontalaria**” jarduera ospatu genuen. Bertan, haurrek Sagardoetxeako *Dasti* sagarraren istorioa ezagutzeko aukera izan zuten ipuin moduan.

Argazki erakusketa Sagardoetxean

Maiatzaren 18tik 24ra bitartean “**Sagastiak loretan eta ardiak larretan**” argazki erakusketa ikusgai izan zen Sagardoetxean.

Bertan, aurrez Facebook-eko lehiaketa honetan parte-hartu zuten eta 4 museoetara bidalitako argazkiak ikusteko aukera eskaini genuen.

Olatu Talka Sagardoetxean

Iaz hasitako “Musika sagastian” ekimenarekin jarraituaz, maiatzaren 24an **Olatu Talka** ospatu genuen Sagardoetxean “**Dasti Sagardoetxean**” jarduerarekin sagastiak loretan zeudela ospatu eta Donostia 2016 ekimenarekin parte hartzeko.

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferías
Ekitaldiak-Eventos
Errezetak-Recetas
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomía-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Prentsa-Prensa
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerias-Sagardotegiak
Turismoa-Turismo

Post Recientes



Sagardoetxeako
Dokumentazio Zentroa:
kartelak.



Sagardoa munduan:
sagardoaren kulturaren
inguruko bideoak,
tweet-ak, blog-ak, bisitak...



Sagardoaren Hiztegia:
sagarrekin egina eta
sagarren ahogozoak.



Sagar deshidratatua
txokolatearekin.

Jarduera honetan, herriko hainbat talde kulturaren parte-hartzea izan genuen: Norberto Almandoz Musika Eskola, Astigarragako Antzerki Eskola eta Astigar E.O.E.ko haurrak.

Denen laguntzarekin, Sagardoetxeako sagastian *Dasti* sagarraren istorioa antzerki, dantza eta musikaren bitartez narratu genuen eta herritar ugari gerturatu zen ikuskizunaz gozatzeraz.

Iturria: Sagardoaren Lurraldea Boletina 35

Egilea: Sagardoetxea Museoa

Tags: argazki lehiaketa, concurso de fotos, dastaketa, degustación, Día Internacional de los Museos, Donostia 2016, erakusketa, exposición, manzanos en flor, Museoen Nazioarteko Eguna, Olatu Talka, primaveran, sagardoa, Sagardoetxea, Sagastiak loretan, Sidra, udaberria

Anterior post

Responsable de ventas en una
sidrería.Sagardotegiko salmenten arduraduna.

Siguiente post

Marcas de manzana conocidas: grupo de rock
Beatles y dispositivos Apple.Sagar marka
ezagunak: Beatles rock musika taldea eta Apple
gailuak.

Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar



Sagarra deshidratatua bada ere, egunero sagar bat jatea... benetan osasungarria da.

Comentarios recientes

Ion Azpiazu en **Sagardoa eta txotx-aren erritua BBC TRAVEL-en.**

J.M de Amassorrayn en **2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.**

Kalakan abrirá mañana la nueva temporada de txotx | NON SERVIAM en 2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.

Sagardoaren Lurraldea en XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.

agandamin en XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.